

ERABAKIA, 2025eko MAIATZAREN 22koa, TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDEARENA, ERASMUS+ PROGRAMAREN BARRUAN UPV/EHUko LANGILEEK IRAKASKUNTZA ETA/EDO PRESTAKUNTZA HELBURU DUTEN MUGIKORTASUNETAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK ONARTZEN DITUENA, PROGRAMARI LOTUTA EZ DAUDEN HERRIALDETARA JOAN DAITEZEN (2023ko PROIEKTUAREN 4. DEIALDIA)

Transferentzia eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearen deialdi honek ezartzen ditu Erasmus+ programaren barruan irakaskuntza eta/edo prestakuntza helburu duen mugikortasuna egiteko baldintzak eta laguntzak esleitzeko prozedura, programari lotuta ez dauden herrialdeetara joateko.

Oraingo honetan, 2023ko proiektuaren baitan eta deialdi honen bidez, mugikortasunak esleitu nahi zaizkie Euskal Herriko Unibertsitateko langileei Japoniara joan daitezen, kontuan hartuta Europar Batzordeak Hezkuntza Nazioartekotzeko Zerbitzu Espainiarraren bidez (SEPIE) emandako jarraibideak.

Kontuan hartuta 2023 Nazioarteko Erasmus+ KA171/KA131 proiektuei lotutako dirulaguntzen kontratueta Europako funtsetatik datorren kreditua dagoela, eta ditudan eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa: Onartzea eta argitara ematea Erasmus+ mugikortasun deialdiko oinarriak, UPV/EHUko langileek parte har dezaten irakaskuntza eta/edo prestakuntza helburu duten mugikortasunetan, programari lotuta ez dauden herrialde hauetan: Japonia.

Hau da 2023 KA171 eta Nazioarteko-KA131 proiektuetarako egiten den 4. deialdia.

Bigarrena: Esleituko den plaza kopurua bat etorri beharko da 1. eranskinean agertzen den zerrendarekin. Jasotako eskaeren eta eskura dagoen finantzaketaren arabera, 5. puntuaren aurreikusitako Hautaketa Batzordeak 1. eranskineko plazak gehitu edo aldatu ahal izango ditu, betiere eskatzaile batek ere kalterik ez badu.

Hirugarrena: Deialdi honetan aurreikusitako mugikortasunak 2023 Erasmus+ KA171/Nazioarteko-KA131 proiektuetan erabilgarri dagoen finantzaketaren kontura gauzatuko dira.

Hala ere, Erasmus+ KA171/KA131 proiektuak ahalik eta gehien gauzatzeko, proiektu horien kudeaketaz arduratzen diren pertsonak, Nazioartekotze zuzendariaren oniritziarekin, deialdi honen azken ebazpenaren ondorioz sortutako itzarote-zerrendan agertzen diren pertsonen eskaini ahal izango dieten beren mugikortasuna burutzeko aukera beste proiektu batzuen kargura, betiere aurreikusitako mugikortasunak bat badatoz egozten zaizkien amaierako proiektuarekin. Bide hori erabiltzeko, onuradunei behin betiko proiektu finantzatzailearen arabera dagozkien zenbatekoak eguneratuko zaizkie.

Laugarrena: Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da kasuan kasuko administrazio auzietarako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena). Dena den, egintza espresua bada, aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio erabakia eman duen organoari hilabeteko epean (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 123. eta 124. artikulua).

OINARRIAK

1.- Deialdiaren helburua	3
2.- Parte hartzeko baldintzak	5
2.1.- Eskatzaileen betebeharrak	5
2.2.- Inklusioa	6
2.3.- "COIL / Virtual Exchange" proiektuak sustatzen dituzten ekimenak	6
2.4.- Egonaldiaren iraupena	7
2.5.- Helburuko unibertsitateak	7
3.- Aurreikusitako finantzaketa	7
4.- Eskariak egiteko prozedura	8
4.1.- Eskaria eta nahitaezko dokumentazioa	8
4.2.- Eskariak aurkezteko epea eta era	9
4.3.- Eskariak zuzentzea eta osatzea	10
5.- Hautaketarako prozedura	10
5.1.- Onartzea edo uko egitea, eta itxaron zerrenda	12
5.2.- Behin betiko esleipena	12
5.3.- Egutegia	13
6.- Parte hartzeko konpromisoak	13
6.1.- Mugikortasuna hasi aurretik	13
6.2.- Egonaldiaren ondoren	14
7.- Dirulaguntza ordaintzea	14
8.- Aldaketak, uko egitea eta atzera egitea	15
9.- Dirulaguntza itzultzea eta eskakizunak ez betetzea	15
10.- Deialdi honi buruzko informazioa eta kontaktuak bilatzeko laguntza	16
Eranskinen zerrenda	17

1.- Deialdiaren helburua

Deialdiaren helburua da dirulaguntzak ematea UPV/EHUko langileei, irakaskuntza eta/edo prestakuntza helburu duten mugikortasunak egin ditzaten UPV/EHUrekin "Erasmus+ Nazioarteko- KA171 / KA131" hitzarmena eginda duten goi mailako irakaskuntza erakundeetan, programari lotuta ez dauden herrialde hauetan: Japonia.

2023 Erasmus+ KA171 eta Nazioarteko-KA131 proiektuetan laugarren deialdia da.

Mugikortasunen helburua hauetako bat izan daiteke: a) irakaskuntza, b) prestakuntza, c) irakaskuntza eta prestakuntza.

a) Irakaskuntzarako mugikortasuna

Egonaldian emango den irakaskuntza izan behar da helburuko erakundearen gradu edo graduondoko titulu ofizial bat lortzera bideratutako ikasketa programa batekoa, eta hala jaso beharko da irakaskuntzarako mugikortasun akordioan (*Mobility Agreement for Teaching*, 3.1 eranskina), erakunde biek adostu beharko dutena aldez aurretik.

Ekintza honek helburu hauek ditu:

- Garapen profesional eta pertsonalerako aukerak eskaintzea UPV/EHUko irakasle-ikertzaileei (IRI).
- Irakaskuntzako metodologiaren gaineko esperientzien trukea eta berrikuntza sustatzea.
- Eskaintzen dituzten ikastaroen hedapena eta edukiera zabaltzera eta aberastera bultzatzea unibertsitateak.
- Hizkuntza trebetasuna hobetzea hirugarren hizkuntza batean.
- Aukera bat ematea mugikortasun ekintzetan parte hartu ezin duten helburuko unibertsitateetako ikasleei beste herrialde batzuetako irakaskuntza ezagutzak eskuratzeko eta, hala behar bada, eskola magistralak/praktikak atzerriko hizkuntza batean jasotzeko.

Irakaskuntzako jardueretan gutxienez zortzi (8) eskola ordu eman beharko dira astean.

b) Prestakuntzarako mugikortasuna

Prestakuntzako jarduerak prestakuntzarako mugikortasun akordioan jaso beharko dira (*Mobility Agreement for Training*, 3.2 eranskina), erakunde biek adostu beharko dutena aldez aurretik.

Mugikortasun mota honen helburu nagusia da langileak egonaldi labur bat egin dezala erakunde bazkidean. Egonaldi hori hainbat modutan deitu daiteke (zerbitzu betekizun laburra, profesionalen behaketa, ikasketa bisitaldia, *staff week* batean parte hartzea...), eta bestelako ekimenak ere eraman hala izango dira aurrera, betiere behar bezala justifikatzen badira atzerrian egingo den lan planean.

Hauek dira ekintza honen helburu zehatzak:

- Lan bizitza osoan ikasten jarraitzeko aukera eskaintzea.
- Hizkuntza trebetasuna hobetzea hirugarren hizkuntza batean.
- Unibertsitateko kide guztien nazioartekotzea sustatzea.
- Jardunbide egokien behaketa erraztea, erakunde bazkideen lan moduei eta lan inguruneei dagokienez.
- Onuradunaren lanpostuak eskatzen dituen gaitasunak hobetzea.
- Unibertsitate bazkideekiko harremanak sendotzea.

c) **Irakaskuntzarako eta prestakuntzarako mugikortasuna**

Irakaskuntza eta prestakuntza uztartuko dituen mugikortasuna egin ahal izango da. Mugikortasun mota honetan gutxienez lau (4) eskola ordu eman beharko dira helburuko unibertsitatearen gradu edo graduondoko titulu ofizial batera zuzendutako ikasketa programa batean.

Mugikortasuna izango da irakaskuntzarako mugikortasunen kasuetan egiten dena (*Mobility Agreement for Teaching*, 3.1 eranskina), eta bertan adierazi beharko da asteen gutxienez lau (4) eskola ordu emango direla.

Mugikortasunean sar daiteke prestakuntza ematea goi mailako hezkuntzako erakunde bazkidearen garapenerako.

GARRANTZITSUA: deialdi honen helburua da **irakaskuntza** zein **prestakuntza** sustatzea (bai eman bai jaso), eta jarduera biak uztartu ahal izango dira irakaskuntzarako mugikortasun batetik abiatuta.

Ikerketako jarduerak ez dira sartzen Erasmus+ ekintza honetan eta, beraz, ez dute justifikatzen egonaldiaren interesa, ezta ere atzerrian egingo diren jarduerak. Aldiz, ikerketarako irakaskuntza eta prestakuntza jarduerak sartzen dira ekintzan.

Mugikortasun hauen bidez ezin da joan biltzar, hitzaldi edo beste edozein motatako jarduera orokorretara, ez bada jarduera hori antolatu dela helburuko erakundearekin hitzartutako lan plan zehatz bati jarraiki (*Mobility Agreement*). Oinarri hauetako 5. puntuari aipatzen den Hautaketa Batzordeak ebaluatuko du proposamena, erabakitzeko bat datorren ala ez deialdiaren helburuarekin.

2.- Parte hartzeko baldintzak

2.1.- Eskatzaileen betebeharrak

1. Eskatzaileak Erasmus+ programan parte hartzen duen herrialde bateko nazionalitatea izan beharko du, edo beste herrialde batekoa, baina azken kasu horretan, egiaztatu beharko du baduela Espainian bizitzeko baimena mugikortasuna egingo duen aldirako.
2. Eskatzaileak zerbitzu harremana izan beharko du UPV/EHUrekin edo erakunde horri atxikitako zentro batekin, dela funtzionario moduan dela lan kontratudun moduan, eta zerbitzu aktiboan egon beharko da, bai eskaera egiten duenean bai mugikortasuna egiten duenean.
3. Eskatzaileak egiaztatu beharko du baduela eskatzen duen plazarako beharrezkoa den perfila, erabaki honen 1. eranskinean adierazitakoari jarraiki.
4. Eskatzaileak halako kasuetarako eskatu ohi den lekualdatze lizentzia kudeatu beharko du, eta ontzat eman beharko diote.

5. Jatorriko eta helburuko erakundeek sinatu egin beharko dute behin betiko irakaskuntza eta/edo prestakuntza programa (3.1 edo 3.2 eranskina), eskatzaileak mugikortasuna egin baino lehen aurkeztu beharko duena.

6. Eskatzaileak **atzerriko hizkuntza** batean gutxienez B1 maila daukala egiaztatu behar du, 1. eranskinean salbuetsitako kasuetan izan ezik.¹

Helburuko unibertsitateak goragoko jakite maila eskatu ahal izango du hizkuntza jakin baterako (1. eranskina). Halakoetan, eskatzaileak egiaztatzea aurkeztu beharko du.

7. Irakaskuntza eta/edo prestakuntza helburu duen Erasmus+ mugikortasunaren oinarria dira parte hartzen duten erakundeek sinatu beharreko hitzarmenak.

Unibertsitate biek ez badute sinatu hitzarmenik mugikortasuna egin aurretik, ezingo da egin, ezta diru-laguntzarik jaso.

1. eranskinean agertzen dira aipatutako hitzarmena sinatuta duten erakundeak, bai eta oraindik sinatzeke dutenak ere.

Dirulaguntzak esleitu ondoren, hitzarmena sinatzeke dagoen kasuetan ezingo da egin inolako gasturik, harik eta idatziz jakinarazi arte hitzarmena sinatu dela.

2.2.- Inklusioa

SEPIEk diru laguntza gehigarriak emateko prozedura bat jarriko du desgaitasuna edo bestelako osasun arazo fisiko eta mentalak dituzten langileentzat. Laguntza horiek orokorrak baino handiagoak izan ahalko dira.

Aipatutako egoeran bazaude, bidali mezu bat pc.international@ehu.eus helbidera, jakiteko zeintzuk diren jaso ditzakezun laguntza osagarriak.

Bai UPV/EHUk, bai bere unibertsitate bazkideek, profil hori duten eskatzaileei eta parte hartzaileei laguntzeko asmo sendoa dute, hala deialdian nola mugikortasunen aurretik, bitartean eta ondoren.

2.3.- "COIL / Virtual Exchange" proiektuak sustatzen dituzten ekimenak

Kontuan hartuko dira bereziki graduoko edo graduondoko ikasketa ofizialetako irakasgai jakin batean "COIL / Virtual Exchange" proiektu bat abian jartzeko egingo diren mugikortasun proposamenak.

"COIL / Virtual Exchange" da programan parte hartzen duen UPV/EHUko irakaslearen ikasleek eta helburuko unibertsitateko irakaslearen ikasleek elkarren artean aurrera eramango duten jarduera edo proiektua. Helburua izango litzateke

¹ CRUEren Egiaztatze Batzordeak eta ACLES elkarteak ontzat emanako ziurtagiriak onartuko dira (ikus ondorengo esteka), bai eta UPV/EHUko irakasleek hizkuntza ez-ofizialetan irakasteko gaitasuna egiaztatzen duen agiria ere: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/hizkuntza-gaitasunaren-akreditazioa>
<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/eleaniztasun-plana-probak>

ikaskuntzarako eta taldean lan egiteko elkartruke birtuala eskaintzea ikasleei, UPV/EHUko irakaslearen eta helburuko unibertsitateko irakaslearen zuzendaritzapean.

Mugikortasuna proiektua diseinatzeko aukera izan liteke. Onena izango litzateke mugikortasuna proiektuko parte izatea; hau da, proiektua diseinatzea mugikortasuna egin aurretik eta, horrela, irakasleek bidaia egingo lukete eskolak emateko helburuko unibertsitateko ikasleei.

2.4.- Egonaldiaren iraupena

Laguntzak esleitzeko azken erabakia argitaratu ondoren egin beharko da mugikortasuna (2025eko uztailan argitaratuko dela aurreikusten da).

Helburuko unibertsitateko egonaldia bukatuta egon beharko da 2026eko uztailaren 31rako. Dena den, interesdunei gomendatzen diegu 2025. urtean ezar ditzatela mugikortasuna egiteko datak edo, beranduenez, 2026eko udaberrian.

Egonaldia bost (5) egun baliodunekoa izango da, astelehenetik ostiralera, bidaia egunak zenbatzeke.

2.5.- Helburuko unibertsitateak

Deialdi honen 1. eranskinean agertzen dira UPV/EHUrekin hitzarmena sinatuta duten erakundeak, eta plaza bakoitzerako bete beharreko baldintzak.

Ez badago sinatuta bi unibertsitateen arteko Erasmus+ hitzarmena mugikortasuna egin aurretik, ezingo da egin inolako gasturik, ezta mugikortasuna ere.

Erasmus+ hitzarmena sinatzen denean, horren berri emango die Nazioarteko Harremanen bulegoak, posta elektronikoz, hitzarmenik gabeko mugikortasuna esleituta izan duten pertsonen, bai eta mugikortasuna zein datatik aurrera antolatu ahal izango duten jakinarazi ere.

Halakorik jakinarazten ez bada, ulertu beharko da erakundeen arteko hitzarmena sinatzeko negoziazioek ez dutela aurrera egin eta, hortaz, pertsona horiek ezingo dute egin mugikortasuna deialdi honen baitan. Erakundeen arteko hitzarmenik ez duen mugikortasuna aukeratzen duten pertsonen argi izan behar dute gerta dakiekeela ezin egin izatea eskatutako mugikortasuna.

3.- Aurreikusitako finantzaketa

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak kalkulatu dira SEPIEren finantzaketa arauari jarraiki.

Langileek Europako dirulaguntza bat jasoko dute beste herrialdera joateko bidaia gastuak eta egonaldiko mantenu gastuak ordaintzen laguntzeko. Laguntza hori bi kontzeptutan banatzen da:

- a) **Bidaia gastuetarako laguntza** kopuru jakin bat da, kalkulatzeko dena lan lekuaren eta kasuan kasuko jardueraren egingo den lekuaren arteko distantziaren arabera, EACEAk denaren esku jarritako tresna informatiko bat erabiliz:

<https://erasmus-plus.ec.europa.eu/resources-and-tools/distance-calculator>

Distantzia	Zenbatekoa (parte hartzaileko)
2000 eta 2999 km bitartean	360€
3000 eta 3999 km bitartean	530€
4000 eta 7999 km bitartean	820€
8000 km edo gehiago	1500 €

- b) **Mantenurako laguntza** da EBk ematen duen laguntza indibiduala, eta 180 euro dira egunean, astelehenetik ostiralera.

Horrez gain, Erasmus+ programak aukera ematen du joaneko bidaiari dagokion eguna finantzatzeko jarduerak egiten hasi aurretik eta itzulerako bidaiari dagokion beste bat, beti ere agiria aurkeztuz gero (hegazkineko txartela).

SEPIEk diru laguntza gehigarriak emateko prozedura bat jarriko du desgaitasuna edo bestelako osasun arazo fisiko eta mentalak dituzten langileentzat. Laguntza horiek orokorrak baino handiagoak izan ahalko dira. Ikusi deialdiko 2.2 puntua.

4.- Eskariak egiteko prozedura

4.1.- Eskaria eta nahitaezko dokumentazioa

Eskariak indibidualak izango dira. Pertsona bakoitzak eskari bakarra aurkeztu ahal izango du deialdi honetarako.

Eskaria egiteko erabiliko da erabaki honekin batera web orrian argitaratutako eredu normalizatua.

Ondo bete gabeko eskaerak ez dira hartuko kontuan akatsak zuzentzeko aldiaren ondoren, ezta ere plaza bakoitzerako 1. eranskinean eskatzen den profila egiaztatzen ez duten pertsonenak.

Hauek dira aurkeztu beharreko dokumentuak:

1. Eskari orria, behar bezala beteta eta eskatzaileak sinatuta (2.1 eranskina irakaskuntzarako eta irakaskuntza+prestakuntzarako, 2.2 eranskina prestakuntzarako).
2. Behin-behineko lan programa, eskatzaileak sinatua (3.1 eranskina irakaskuntzarako eta irakaskuntza+prestakuntzarako, 3.2 eranskina prestakuntzarako).

3. Helburuko unibertsitatean interesatuaren homologoa den pertsonak lan planari emandako onespina (4. eranskina).
4. Eskabidea egiteko baimena (5. eranskina):

Teknikarien eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileen (TEKAZEL) kasuan, zentro batekoak badira, bere zentroko Nazioarteko Harremanetarako koordinatzailearen baimena.

Zentro batean lan egiten ez badute, hierarkian gorago dagoenaren baimena.

Fakultate edo eskola bateko irakasle eta ikertzaileen kasuan (IRI), ikastegiko Nazioarteko Harremanetarako koordinatzailearen baimena behar dute. Eskatzailea koordinatzailea bera bada, hierarkian gorago dagoen pertsonari sinadura eskatu beharko dio.

Sail bateko kide izanez gero, TEKALZEL edo IRI izan, interesdunak lan egiten duen saileko zuzendariaren baimena ere beharko du.

5. Eskatzailearen curriculum vitae, ingelesez (Mexiko eta Argentinako erakundeetarako gaztelaniaz).
6. Atzerriko hizkuntza batean gutxienez B1 maila izatea egiaztatzen duen agiria. Gomendatzen da interesatuak aurkez ditzala egiaztatuta dituen jakite maila guztiak, kontuan hartuko baitira berdinketarik egonez gero (ikus 5. oinarria). Eskatu den plazarako beharrezkoa den profila betetzen duela egiaztatzen duen agiria, 1. eranskinean adierazitakoaren arabera.

4.2.- Eskariak aurkezteko epea eta era

Eskariak 2025eko ekainaren 5era arte aurkeztu ahal izango dira, egun hori barne.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakiarekin, zeinaren bidez onartu ziren interesdunak eta UPV/EHUko langileak harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, honela aurkeztuko dira eskariak:

- **Eskaria UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bidez aurkeztu beharko da** (<https://egoitza.ehu.eus/>). Identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili beharko da: UPV/EHUko langile txartela, Izenperen ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

- Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskariak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko berariazko adostasuna adierazi ondoren; guztia bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin, horren bidez onartzen baitira gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Eskaria aurrez aurre aurkeztuz gero, hau jarri beharko da azalean:

Euskal Herriko Unibertsitatea

Gipuzkoako Campuseko Nazioarteko Harremanen bulegoa

(Irakaskuntzarako eta/edo prestakuntzarako Erasmus+ KA171 mugikortasun deialdia)

Ignacio M^a Barriola zentroa

Elhuyar plaza, 1

20018 Donostia

4.3.- Eskariak zuzentzea eta osatzea

Eskariak ez baditu betetzen 39/2015 Legeko 66. artikuluko, edota aplikatu beharreko legeria espezifikoa ezarritako beste batzuk, hamar eguneko epea emango zaio interesdunari hutsak zuzendu edo falta diren dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskarian atzera egin duela ulertuko dela, dagokion erabakia eman ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako moduan (39/2015 Legea, urriaren 1koa, 68. artikulua).

Hutsak zuzentzeko eskatzen zaien pertsonen erregistro elektronikoa bidez aurkeztuko dute eskatutako dokumentazioa, 4.2 puntuan adierazitako moduan.

5.- Hautaketarako prozedura

Hautaketa batzorde batek aztertuko ditu eskariak, eta batzorde horretako kideak honako hauek izango dira: Nazioarteko Mugikortasunaren arloko zuzendaria, Nazioarteko Harremanetako Zerbitzuko burua eta batzordeko idazkari lanak egingo dituen teknikari bat (hitza izango du, baina botorik ez).

Era berean, UPV/EHUk eskatuko die helburuko unibertsitateei egin dezatela aurkeztutako pertsonen balorazioa.

Behar bezala aurkeztutako eskariak baino ez dira ebaluatuko, baldin eta helburuko erakundeak onartutako lan programa ere aurkezten badute, eta betiere egokiak badira deialdian jasotako helburuak betetzeko.

Mugikortasunak emango dira norgehiagoka prozedura baten bidez, eskarien balorazio kualitatiboan oinarrituta, modu honetara:

1. UPV/EHUko Hautaketa Batzordearen balorazioa (eskatzailearen CV eta behin-behineko mugikortasun akordioan proposatutako lan plana): 1etik 10era.
2. Helburuko unibertsitateak igorritako balorazioa (eskatzailearen CV eta behin-behineko mugikortasun akordioan proposatutako lan plana): 1etik 5era.

Eskatzaile bakoitzak gutxienez 11 puntu lortu beharko ditu, plazaren bat eskuratzeko hautagaia izan ahal izateko.

Plaza baterako eskatzaile bakarra badago, bi unibertsitateek gehienezko puntu kopurua eman ahal izango dute erabakia argudiatu gabe

Balorazioak honela egingo dira:

Balorazio kualitatiboa	UPV/EHU (puntuak)	Unibertsitate bazkidea (puntuak)
Bikaina	9tik 10era	5
Oso ona	7tik 8ra	4
Ona	6	3
Nahikoa	5	2
Eskasa	1etik 4ra	1
Gutxiegia	0	0

Curriculumari dagokionez, baloratuko dira irakaskuntzaren arloko esperientzia, ikerketakoa, argitalpenak eta abar.

Mugikortasun akordioa baloratzeko kontuan hartuko dira metodologia, bideragarritasuna, irakaskuntza eta/edo hezkuntza berrikuntza, eta curriculum garapenerako egokitasuna. Era berean, kontuan hartuko dira izan dezakeen garrantzia, eragina eta balio erantsia, bai helburuko unibertsitatean bai jatorrikoan, mugikortasuna egin ondoren. Kontuan hartuko dira bereziki irakasgai baten "COIL / Virtual Exchange" proiektu bat abian jartzeko egingo diren mugikortasun proposamenak, oinarri hauetako 2.3 puntuan adierazitako moduan.

Plaza baterako eskatzaile bakarra badago eta pertsona hori UPV/EHUK zein helmugako unibertsitateak onetsi behar badute, UPV/EHU eta helmugako unibertsitatea ez dira behartuta egongo puntuazioa argudiatzera, eta gehieneko puntuazioa eman ahal izango diote.

Berdinketarik egonez gero.

1. Lehenik eta behin, Erasmus+ programaren barruan irakaskuntza eta/edo prestakuntza helburu duten mugikortasunetan lehen aldiz parte hartzen duten pertsonen eskariak hartuko dira kontuan.
2. Ondoren, baloratuko dira azken bost (5) ikasturteetan² Erasmus+ programen barruan irakaskuntza edo prestakuntza helburu duten mugikortasun gutxien egin duten pertsonen eskariak.
3. Berdinketa gertatuz gero, lehentasuna izango dute atzerriko hizkuntzan hizkuntza trebetasun handiena egiaztatzen duten eskariek, eta lehentasuna izango dute lan plana idatzi den atzerriko hizkuntzei dagozkien egiaztagirak dituztenak.
4. Berdinketa ez bada hautsi, atzerriko bigarren hizkuntza batean maila altueneko ziurtagiria aurkezten duenak lortuko du plaza (gutxienez B1).
5. Berdinketa ez bada hautsi, UPV/EHUn lanean egun gehien daramanak lortuko du plaza. Kasu horretan, Nazioarteko Harremanen bulegoak berdinketa egoera horretan dauden eskatzaileei soilik eskatuko die datu hori.

Transferentzia eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak, ikusita batzordeak lehenetsitako eskariak, batzordeko kideek emandako puntuen eta unibertsitate bazkideek igorritako puntuen arabera, agindua emango du Nazioarteko Harremanen webgunean argitaratzeko behin-behineko onartuen eta baztertuen zerrenda, bai eta itxaron zerrenda ere, izango duen erabakia. Horrez gain, jakinarazpen indibiduala bidaliko zaie interesdunei eskarian adierazitako helbide elektronikora.

5.1.- Onartzea edo uko egitea, eta itxaron zerrenda

Behin plaza adjudikatuta, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari mugikortasuna onartzeko (9. eranskina) edo hari uko egiteko (10. eranskina), UPV/EHUko erregistro elektronikoa aurkeztu beharreko inprimaki baten bidez (<https://egoitza.ehu.eus/>).

Interesdunak ez badu aurkezten 9. eranskina edo 10. eranskina epearen barruan, eskaeran atzera egindakotzat joko da.

Behin betiko zerrendak Nazioarteko Harremanen webgunean argitaratuko dira, eta posta elektronikoz igorriko zaizkie deialdi honetan parte hartuko duten unibertsitateei.

² 2018/19 ikasturtetik aurrera

Hautatuak izan ez diren interesdunen itxaron zerrenda Nazioarteko Harremanen webgunean argitaratuko da, eta ukoren bat egonez gero, bertan daudenei mezu elektronikoa bat bidaliko zaie, zerrendako ordenari jarraituz.

5.2.- Behin betiko esleipena

Mugikortasuna onartzeko edo mugikortasunari uko egiteko 10 egun balioduneko epea igaro ondoren, argitara emango da onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, bai eta itxaron zerrenda ere izango duen erabakia.

5.3.- Egutegia

1.Eskaerak aurkezteko epealdia hasiko da	2025eko maiatzak 22
2.Eskaerak aurkezteko epealdia amaituko da	2025eko ekainak 5
3.Eskaeren behin behineko zerrendak argitaratuko dira eta akatsak zuzentzeko epea hasi	2025eko ekainak 6
4.Hautaketa prozesuan parte hartuko duten eskaeren behin betiko zerrenda argitaratuko da.	2025eko ekainak 23
5.Onartutako, baztertutako eta erreserba zerrendan gelditzen direnen behin behineko zerrenda argitaratuko da, eta emandako laguntza onartzeko edo hari uko egiteko epealdia hasiko da	2025eko ekainak 27
6.Hautatutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko da. Behin betiko erreserba zerrenda argitaratuko da.	2025eko uztailak 14

6.- Parte hartzeko konpromisoak

Deialdian hautatutako pertsonen konpromiso hauek hartuko dituzte:

6.1.- Mugikortasuna hasi aurretik

Interesduna abiatu baino, gutxienez, hamabost (15) egun lehenago bidali beharko dira pc.international@ehu.eus helbidera agiri hauek:

1. **Behin betiko** lan programa, helburuko erakundeak eta interesdunak sinatua (3.1 eranskina edo 3.2 eranskina).
2. Hegazkineko txartelaren edota bestelako garraiobidekoaren kopia.
3. Bidaia aseguruia kontratatu izanaren frogagiria, estalduren deskribapenarekin, eta ordainketarena.

Mugikortasunean parte hartuko duen pertsonak bidaiako laguntza aseguruia izango du, eta haren estalduren artean egongo dira gaixotasunagatik (COVID-19a barne) edo istripuagatik asistentzia medikoa eta farmazeutikoa, eta aberriratzea eta lekualdaketa osasun arazoengatik.

Bidaia aseguruak kontratatzea nahitaezkoa da Erasmus+ programan, eta ezinbestekoa laguntza ekonomikoa jasotzeko. UPV/EHUk IBILI BEREZI aseguruak eskaintzen die IRI eta TEKAZELe.

Goian aipatutako agiriak behin jasota, Nazioarteko Harremanen Bulegoak:

- **Laguntza emango dio parte hartzaileari mugikortasunerako dirulaguntzaren akordioa** betetzerakoan (eskatzaileak sinatu beharrekoa sinadura digital ofizialaren bidez), eta
- **Egonaldiaren amaierako ziurtagiriaren eredia emango dio, Egonaldia egin ondorengo inkesta eredia, bai eta egonaldia egin ondoren jatorriko ikastegi edo zerbitzuarekin izan beharreko bilerako akta egiteko eredia ere.**

Asegururik gabeko mugikortasunak ez dira finantzatu, ezta ere interesduna abiatu aurretik *Mobility Agreement* eta/edo dirulaguntza akordioa sinatu gabekoak ere.

6.2.- Egonaldiaren ondoren

Kitapena egiteko, agiri hauek igorri beharko dira pc.international@ehu.eus helbidera, egonaldia amaitu eta hilabeteko epean:

1. EBren GALDETEGIA (EU Survey). Online bete beharko da hala egiteko gonbita jaso eta 30 egun naturaleko epearen barruan. Betetzen ez bada, dirulaguntza itzultzeko eskatu ahal izango du Transferentzia eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak.
2. Egonaldiaren amaierako ziurtagiria (6. eranskina). Bertan zehaztuko da zein egunetan egin den jardura, eta ziurtagiriaren data izan beharko da egonaldiaren amaierako data bera edo ondorengoa. Ziurtagiria originala izan behar da, zirriborrorik eta zuzenketarik gabe, eta helburuko erakundeko harrera ataleko zuzendariak sinatu eta zigilatu behar du.
3. UPV/EHUren azken inkesta: Parte-hartzaileak UPV/EHUk mugikortasunari buruz egindako azken inkestari erantzun beharko dio.
<https://www.ehu.eus/es/web/forms/shared/-/form/54315158>
4. Egonaldia egin ondoren jatorriko ikastegi edo zerbitzuan antolatu beharreko bilerako aktaren kopia (8. eranskina).
5. Testigantza: Borondatez, mugikortasunetan parte hartzen dutenek beren esperientziaren testigantza utz dezakete hautagai berriak Erasmus+ deialdietan izena ematera animatzeko.
<https://www.ehu.eus/es/web/forms/shared/-/form/53001664>

7.- Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntza bi (2) zatitan ordainduko da, dirulaguntzaren akordioan adierazitako moduan:

1. Mugikortasunaren aurretik: lehenengo ordainketa, Europak gehienera emango duen laguntzaren % 70; eta
2. Mugikortasunaren ondoren: bigarren ordainketa, gainerako zenbatekoari dagokiona.

Aipatutako bi ordainketak kudeatzeko tramiteei ekiteko, beharrezkoa izango da **6. puntuan** aipatzen diren dokumentuak bidaltzea helbide honetara.

pc.international@ehu.eus

Erasmus+ mugikortasun deialdia: programari lotuta ez dauden herrialdeak

Gipuzkoako Campuseko Nazioarteko Harremanen bulegoa

Ignacio M^a Barriola zentroa

Elhuyar plaza, 1

20018 Donostia

8.- Aldaketak, uko egitea eta atzera egitea

Egonaldiak egingo dira horretarako baimendutako aldietan. Aurreikusitako datetan eragina duten aldaketak posta elektronikoz jakinarazi beharko dira, pc.international@ehu.eus helbidera idatzita, betiere mugikortasuna egiteko baimendutako hasierako data baino lehenago.

Adjudikatu den plaza bati uko egitea Erregistro Elektronikoen bidez izapidetu beharko da (10. eranskina).

UPV/EHUko langileak ezarritako egunean hasiko dira helburuko ikastegian. Hala egiten ez badute, mugikortasunari uko egin diotela ulertuko da. Uko eginez gero, horren berri eman beharko da berehala Erregistro Elektronikoen bidez. Hala egiten ez bada, hurrengo deialdiko hautaketa prozesutik kanpo geratuko da interesduna.

Interesdunak, bere borondatez, mugikortasun aldia bertan behera uzten badu, horren berri eman beharko dio errektoreordetzari Erregistro Elektronikoen bidez, bere egoera erregularizatzeko. Egoeraren berri ematen ez badu eta laguntzarik ordaindu bazaio, fede txarreko jokabidetzat hartuko da. Edozelan ere, langileak mugikortasuna bertan behera uzten badu baimenik gabe, jasotako laguntzak itzuli beharko ditu.

9.- Dirulaguntza itzultzea eta eskakizunak ez betetzea

Deialdian adierazitako oinarri eta/edo epeak ez betetzea, eta datuak ezkutatzea, aldatzea edo manipulatzeko izan daitezke emandako laguntza ezesteko, eteteko edo deuseztatzeko kausa, eta ordaindutako kantitateak itzuli beharra ekarriko luke.

Nazioarteko Harremanen bulegoak beharrezko ikusten dituen dokumentu guztiak eskatu ahal izango dizkie bai onuradunei bai helburuko unibertsitateei, mugikortasuna deialdiaren xedearen arabera izan dela egiaztatzeko.

Baldin eta laguntzen onuradunak azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 53.1 artikuluan jasotako kasuren batean

badaude, edo deialdi honetan edota dirulaguntza emateko erabakian ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Transferentzia eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak, dagokion erabakiaren bidez, galdutzat emango du ordaintzeke dauden zenbatekoak jasotzeko eskubidea eta, hala badagokio, itzultzeko betebeharra ezarriko du, alde batera utzi gabe bidezkoak diren gainerako egintzak, bat etorritik abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoarekin, zeinaren bidez arautzen den dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra eta ezartzen diren horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak eta eginbeharrak.

10.- Deialdi honi buruzko informazioa eta kontaktuak bilatzeko laguntza

UPV/EHUK webgune honetan argitaratuko ditu deialdi honen baitan egingo diren urratsak:

<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/europatik-kanpo-2021-2027>

Helburuko unibertsitatean kontaktuak bilatzeko laguntza behar izanez gero, interesduna harremanetan jar daiteke UPV/EHUKo Nazioarteko Harremanen bulegoarekin, **pc.international@ehu.eus** helbide elektronikora idatzita edo 943 015738 telefonora deituta.

Laguntzarik behar izanez gero helburuko erakundean harrera egingo dieten lankide homologoak identifikatzeko, interesdunak harremanetan jarri beharko dira UPV/EHUKo Nazioarteko Harremanen bulegoarekin 2025eko maiatzaren 20a baino lehen.

Leioan, 2025eko maiatzaren 22an

Miren Gotzone Barandika Argoitia

Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordea

Eranskinen zerrenda

- 1. eranskina Mugikortasuneko plazen zerrenda**
- 2.1 eranskina Irakaskuntzarako eskatzeko orria**
(Irakaskuntzarako eta irakaskuntza+prestakuntzarako ere bete beharrekoa)
- 2.2 eranskina Prestakuntzarako mugikortasunak eskatzeko orria**
- 3.1 eranskina Irakaskuntzarako mugikortasun akordioa (Mobility Agreement for Teaching)**
(Irakaskuntzarako eta irakaskuntza+prestakuntzarako ere bete beharrekoa)
- 3.2 eranskina Prestakuntzarako mugikortasun akordioa (Mobility Agreement for Training)**
- 4. eranskina Helburuko unibertsitatean interesatuaren homologoa den pertsonak lan planari emandako onespina**
- 5. eranskina Eskaera egiteko baimena**
- 6. eranskina Egonaldiaren amaierako ziurtagiria**
- 8. eranskina Egonaldia egin ondorengo batzarraren akta**
- 9. eranskina Plaza onartzeko orria**
- 10. eranskina Plazari uko egiteko orria**